


BERBAROTARRA

4. alea. 1995eko udaberria

hazi egin gara

Gero eta handiagoa da Berbaroko langileen taldea.



Bulegoan beste liberatu bat daukagu: **Aitor Uriarte**. Batik bat, gazteen arlora bideratuko ditu indarrak, esperientzia handia baitauka zeregin horietan.

Aitorraz gainera, 4 lagun daukagu Berbaron euren ikasketetako praktikaldia egiten:

Natalia Munitxa, abadiñarra: Zuzenbidea amaitu ondoren, Itzulpen Masterra egiten ari da eta Berbaron dihardu Durangoko elkartei zerbitzua dohainik ematen eta Berbaroko agiriak (tabernakoak, gazte elkartekoak...) euskaratzen. Aste Santura

arte izango dugu gurekin.


Alex Domínguez, durangarra: Lanbide Heziketan Administrazioa ikasten ari da. Bulegoko lanak antolatzen laguntzen du. Aste Santura arte ibiliko da lan horretan.

Ines Serrano, larrabetzuarra: filosofia ikasi du eta hizkuntz normalkuntzarako diploma ateratzen ari da. Ekainera bitartean, Berbaroren sorrera, helburuak, eragina, lana eta etorkizuna aztertuko ditu alderdi soziolinguistikotik. Oso interesgarria izango da Berbarorentzat kanpoko pertsona baten ikuspuntua izatea, are gehiago ikerlari honen tutorea zein den jakinda (Julen Arexola-leiba).

Alazne Loizate, garaitarra: Euskal Filologia amaitu du eta Hizkuntz Normalkuntzarako diplomatura egiten ari da. Praktiketarako aukeratu duen lana "Durangon kalean erabiltzen den euskararen

erabilera" da. Kaleko lana sentsibilizazio taldekoek egingo dute eta berak prestatu, koordinatu eta ondorioak aterako ditu.

Bulegoko inurri horiez gainera, tabernan ere hainbat langile daukagu, zein baino zein finagoak. **Asier Iturriaga** eta **Joselu Bikandi** dira astegunetan eta asteburuetan txandaka barran egoten direnak. Horiei laguntzen, asteburuetan, **Unai Zuazua**, **Borja Ortueta**, **Eneko Barrenetxea** eta **Jon Ortuzar** izaten dira. Jugatz Duñabeitia ere hor izaten dute denetik egiteko (basoko batu, garbitu, apaletan ipini...).



Erakusketak

Hemendik aurrera Berbaroko tabernan argazki, koadro eta kartel erakusketak izango ditugu. Gure asmoa aste birik bat antolatzea da. Orain arte, *Ihauterietako Kartel Folklorikoak* izeneko bat eta Durangoko *ihauterietako Argazkien* beste bat atondu ditugu. Hurrengo erakusketa **KORRIKA**ren gainekoa izango da. Erakusketen gainean proposamenik baduzu, edo erakusgaiak dituen norbait ezagutzen baduzu, deitu Berbarora.



Mus Txapelketa

Berbaroren I. Mus Txapelketa martxoaren 17tik 19ra bitartean jokatu da gure elkarteak Santa Anan daukan tabernan. Guztira 17 bikote aritu dira lehian. Hurrengo alean esango dugu irabazleak nortzuk izan diren. Edozelan ere aita ditzakegu 1. go hiru bikoteek irabazitako sariak.

1. 17.000 pta. eta txapela.
2. 10.200 eta txanpaina.
3. 3.400 eta txanpaina.

Zorionak txapeldunei eta parte hartu duzuen guztioi.

Berbaroren laguntzarekin AEK-k antolaturiko *Hika* ikastaroa aurrera doa. 15 ikasleko taldea osatu dute eta dagoeneko jendea izena ematen hasi da bigarren ikastaro baterako.

Berbaroko irakaskuntza taldeak D ereduaren aldeko kanpaina bati ekin dio, EKBrekin batera.

Berbarok Batzar Nagusia egingo du apirilaren 6an, arratsaldeko 7,30etan, Pinondo etxean eta batzar ostean luntxa izango da bazkide guztientzat. Gai garrantzitsuak aztertuko dira eta ezinbestekoa da bazkideon iritzia.

Hemendik aurrera Berbaroko tabernan Euskal Herriko euskal aldizkari guztiak izango dituzue, bertan goxo-goxo irakurtzeko.

Zure lanean edo eguneroko bizimoduan kontratuak, fakturak, agiriak eta abar euskaraz eduki edo egin nahi badituzu, **B e r b a r o k** lagun diezazuke eta Hitz liburudendan-ortu ditzakezu

Elorrioren euskararen erabilerara bultzatzeko sorturiko Barriketan taldean 106 bazkide omen dira, dagoeneko. Lokala ere

ortu dute. Dirudienez, indartsu hasi dira Barriketandarrak.

Zornotzako barnetegian 9 poloniar daude euskara hobetzen. Euskara maila polita ekarri dute handik, izan ere, euren irakaslea Elorrioko Eguzkiñe Arbulu baita. Batek EGA titulua eramango du etxera. Zorionak.

Sorpresak bertso-afarian: Egaña eta Lujanbio baino ez ziren agertzen kartelean. Kartelean agertu ez arren Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Beñat Gaztelurrutiak ere hartu zuten parte, mutil zintzoak dira eta. Karteletik kanpokoak Maialenek ekarri zituen: Irazu bertsolaria eta Tapia trikitilaria eta izena gogoratzen ez dugun beste trikitilari bat. Ezusteko ederra benetan.



BERBAROKO TXOKOA erabiltzeko irrikitzen gaudenok itxaron egin beharko dugu apur batean. Txokoa behar bezala atontzeko nahitaez obrak egin behar dira: atea jarri, sukaldea berritu, jantokia insonorizatu...

Obrak berehala hasiko dira, baina dena batera egin beharrean, zatika egingo direnez, amaitu orduko hilebete gutxi batzuk zain egon beharko dugu. Bien bitartean, txokoaren gestioaz arduratuko den bazkide-taldea osatu, estatutuak egin eta beste hainbat zeregin egiteko dago, beraz, konturatu baino lehen, bertan elkartuko gara tortila eta entsalada artean

AURTENGO KUOTAK ez du igoerarik izango. Azken hiru urteotan Berbaroko bazkideok diru-kopuru berbera ordainduko dugu.

Hala ere, aurten bada aipatu beharreko aldaketa bat. Orain arte, urteko kuota hiru alditan ordaindu dugu, baina hori horrela egiteko bankuek kobratzen dutena kontuan hartzekoa da. Diruzainak esan digu urtero ordaintzen dugun diru-kopuruaren %20 tramitazio-gastuetan galtzen dela. Beraz, alferrik galtzen den diru hori aurrezteko, Berbaroko Zuzendaritzak kuota osoa ordainketa bakar batean kobratzea erabaki du. Hartutako erabakia, seguruenik, ez da denon gustokoa izango, baina Berbaro ez dago dirua alferrik botatzeko moduan.

NEURRIAN

(doinua: Bizkaiko txerriari)

Etorri behar dozu plazerraren bila, Berbaron prest daukazuz patata-tortila, solomoa, piperra eta antxoila, kiwiaren neurriko frito borobila, ahoan ha sartzeko izan behar abila.

Salda bero-beroa, txaka ta lebatza, pernilik ez da falta, ugari dau antza. Kamareroak dabiz honantza-harantza, ikustekoa da bai mutilon tenplantza ta zerbitzen daukien piperra ta gatza.

Bariku, asteburu, goiz eta arratsalde, pintxoak barran dagoz, bai, alderik alde. Luzatu eskua ta prezioik ez galde Berbaron jan zeinke ta ia-ia debalde, ezer jan barik handik ezin inoiz alde.

UDABERRIKO EGITARAUA

MARTXOA

▼ Sarrionandiaren omenaldia: poema irakurketa, kantuak, erakusketa.

▼ Mahai-ingurua Urdulizen: PedroPablo Arrinda eta Gorka Barruetabeña joango dira Berbaroren izenean.

APIRILA

▼ *Prentsetan Gabiz* aldizkariaren ale berria.

▼ Gazte taldekoen irteera.

▼ Batzar Nagusia

MAIATZA

▼ Bertso afaria: bikote ospet-su bat. Ikastolan.

▼ Kafe-antzerkia, tabernan.

▼ Rock jaialdia.

▼ Hitzaldia.

▼ Herri Urrats. Autobusak Pinondo etxean.

EKAINA

▼ Ipuin, bertso eta komiki lehiaketa.

▼ Ibilaldia. Autobusak Pinondo etxean.

▼ Olerki errezitala.

▼ Araba Euskaraz. Autobusak Pinondo etxean.

▼ Hurrengo boletina (Berbarotarra).

URTE OSOAN

▼ Hamabostero, erakusketak tabernan.

↑ orri ↑ a

Berbaro, beste elkarte askorekin batera, AEKri KORRIKA antolatzen laguntzen ari da. AEKk dituen zeregin ugari eta astunen artean lan txikixo bat hartu dugu: rock jaialdia antolatzen laguntzea.

Horrez gainera, Berbarok kilometro bat erosi du eta bazkide guztiok gonbidatuta zaudete kilometro horretan edo besteren batean KORRIKAN parte hartzera.

Bestalde, tabernan KORRIKari buruzko erakusketa bat izango dugu: Durangaldean

azken edizioetan ateratako argazkiak eta KORRIKA hasi zenetik honako logotipo eta kartelak egongo dira ikusgai.

KORRIKA gaez pasatuko denez, egunez KORRIKA txikia izango dugu umeentzat. Durangoko hainbat gazte taldek hartu du horren ardura eta Berbaroko gazte taldea txokolatada prestatzeaz arduratuko da.

KORRIKari laguntzeko beste moduren bat bururatzen bazaizu, jo AEKkoengana, pozik hartuko zaituzte eta.

eskamak kentzen

Oraingoan, sarritan entzuten eta ikusten diren bi txikieria aipatuko ditugu:

1.- IKUSI aditzak bi laguntzaile izan ditzeke: NOR-NORK eta ZER-NORI-NORK:

Gaur goizean Arantzak Edorta ikusi DU. (nork-nor). Arratsaldean, biak elkartu eta honako hau diotso Arantzak Edortari:

ARANTZA:

Gaur goizean kaletik ikusi ZAITUT (nor-nork). Ez DIZUT (zer-nori-nork) ezer esan, oso nekatuta ikusi ZAITUT (nor-nork) eta.

EDORTA:

Ez DIDAZULA (zer-nori-nork) ezer esan, ba, ez ZAITUT (nor-nork) maite.

2.- Hilabeteak minuskulaz edo letra xehez idaten dira:

1995eko martxoak 31

Durangoko jaiak urrian dira



Berbaroren bulego barria Pinondo Etxean dago. Lehengoaren aldean bisitari asko izaten ditu. Baina zeu falta ei zara.

Kaixo lagunak!

Bagatoz berriz ere indartsu eta hitzgeitekogo gogo handiz. Riezuko kanpamenduan oso oso ondo ibili ginen: trekking, tirolina, piraguismo... *ing* guztiak egin genituen, eta beti bezala naturarekin eta euskararekin harreman sakon eta zuzen batera helduaz.

Bestalde, kurtsoari hasiera emateko **MAKRO AFARI** bat izan genuen. Gure aldetik garrantzitsua iruditzen zaigu afari horretan giroa alaitzen egon ziren pertsonen izenak aipatzea: Jaio eta Zigor txiste kontalariak eta Eider, postrea nola jan behar ez den erakutsi ziguna.

Duela gutxi puenting egitera joan ginen Soraluzera, eta zauritu ugari egon zen, beraien artean Aitor, larriki zauritua gainera. **BROMETAN GABILTZA!** Fenomeno ibili ginen eta "txitxigor-dintzi" egin genuen, sua non egin aurkitu ez genuelako.

Ihauterietan Berbarok antolatutako

Bertso Afarira joan ginen, bertan "saltasa eta berakatz" sortzeko. Zenbait bertsolarik (Unaik eta Maddalenek) ura hutsean edan beharrean, ez dakigun arrazoik ezkuturen batengatik, ura azukrearekin edan zuten. Zuriñeren akordeoiak bere bizitzan izango duen esperientziarik goxoa izan zuen: Tapiaren atzamarrek laztandu zuten.

Hemendik eta Aste Santura bitartean egingo ditugun ekintzak hauek dira: Barikuetan dantza ikastaroa izango dugu eta mendira eta patinatzerara ere joango gara. Lau egunetako irteera bat ere egingo dugu. **Korrika txikiaren** jaialdian parte hartuko dugu, antolaketan lagunduz: txokolatea egingo dugu Milaren (Guezan Ba!-ko sukaldari aparta) errezeta erabiliaz.

Ezin dugu agur


esan, gure lehen urtebetzea duela gutxi izan zela aipatu gabe. **ZORIONAK GURI!**

Badakigu gure hurrengo boletinaren zain egongo zarete zurrumurrugehiago jakiteko; azkenak zera dio: Enarak bikotea aurkitu du, baina zoritxarrez oraindik ez dakigu izenik.

Beraz, hurrengo boletinerara arte!!!



Orri honek ez dauka Zuzendaritza Batzordearen baimenik, baina Zuzendaritza Batzordeak ere ez dauka baimen horren orritik eta gainera baimenak Zuzendaritza Batzordearen orritik ez badauka, akats tipografikoak salbu.



Badakigu nor den Berbaroko moztro lehiaketako txapeliduna: Jon Ortuzar. Jon Ortuzarrek jantzi zuen moztroa "Ortuzar Jonena" izan zen. Epaimahaiak, bereziki azpimarratu nahi izan du moztroaren ofijinaltasuna eta kredibilitatea. Sari banaketara argazkian agertzen den Mary Shelley ospetsua etorri zen.

eta horrexegatik dago txokoa oraindino martxan ipini barik, saguarengatik. Baina laster atonduko duten esperantza daukagu, ze dagoneko Juan Luisek esan du Joseluk esan duela Txiki esan duela Andonik esan duela Enekok esan duela Unaik esan duela Gotzonek esan duela.

Har ba!

Txokoa martxan ez egotearen arrazoia (Boletinean beste arrazoik sinestezin batzuk aipatzen badira ere), dirudienez gaizki-ulertze hutsa izan da, Juan Luisek moztro esan baitzuen. Joseluk zomorro ulertu, Txikiri sokorro esan, honek Andoniri loztroa aipatu eta Andonik Enekorik lo-zorroa eskatu. Enekok Unariri sakua eskatu zionean Unaik, orroeka Gotzoneri sagua ikusi zuela adierazi